ITSASONDO EKINEZ EGINA

| LAN TALDEAREN BILERA | |
|---|---|
| **DATA: 2015-10-20** | **BILERA ZENBAKIA:** 24 |
| **ORDUA ETA LEKUA**: Udaletxean, arratsaldeko 19,00tan | |
| **PARTEHARTZAILEAK:** 3 emakumezko eta gizonezko 1. | |

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

## LANDUTAKO GAI ORDENA

**TIPI TAPAN DIRULAGUNTZA.**
Eusko jaurlaritzan gaur egun adostu gabe, baiezkoa dugunean landuko da.

**DENBORAREN BANKUA**
Gaia landu behar zuen lantaldeko kideak ezin izan du bilerara etorri, beraz hurrengo bilerarako geratuko da pendiente gaia.

Legorretan, denboraren bankuaren inguruan, programa informatiko bat landu duen pertsona bat ezagutzen dugu eta hurrengo bilerara etortzea eskatuko zaio. Interesgarria iruditu zaigu.

**FESTEN BALORAZIOA**
Bokata jana ondo atera zen, 150-160 bokata saldu ziren eta ateratako dirua (460€), gizarte langileari emango zaio.

Arazo batzuk izan ditugu baina hurrengo baterako kontutan izango ditugu. Balorazioa oso positiboa da aurten ere.

**BERDINTASUNA**

AZAROAK 25:
18:00tan elkarretaratzea.
19:00tan pelikula “La maleta de Marta”.
Pelikula ondoren, kolokioa (gerturatu direnen artean) edo hitzaldia (Berdintasunaren inguruan hitz egiteko pertsona bat ezagutzen dugu baina erderaz hitz egingo luke). Erabakia hartu beharra dago gauza bat edo bestea.

AZAROAK 27
Autodefentsa ikastaroa konfirmatu gabe dagoenez, agian abendura atzeratu beharko da. Abenduak 12 edo 19an.

**EUSKAL FONDORAKO DIRUA ZERTARA BIDERATU**

ITSASONDO EKINEZ EGINA

Erreferentzie: P261K.
Tokiko garapen ekonomikora bideratutako prestakuntza. EL RAMA R.A.A.S. NIKARAGUA. Arrazoia: diru gutxien daukatelako.

**AURREKONTUAK LANTZEN HASI**

1. Gizarte langilearen iritziz, aurrera pauso bat eman genuenez, honekin jarraitzea komeni da, beraz aurten ere 3.000€ko partida jarrriko da Gizarte Ongizate sailerako.
2. Berdintasunerako 1.000€.
3. “Denboraren bankua” programa informatikoa dela eta, agian zerbait eskatu beharko da, hurrengo bileran hitz egingo da.

**DOKUMENTAL-PELIKULA ZIKLOA**

Datak: abenduak 2, 9 eta 16, asteazkena 18:30, kulturgunean.
Ondorengoetatik 3 aukeratuko dira:

- “El patio de mi cárcel”.
- “El señor Ibrahim y las flores del Coran”.
- “Nebraska”.
- “Comprar, tirar, comprar”.

**DESFRIBRILADORE KURTSOA**

Dena martxan dago. Taldeak osatutakoan, tailerra emago duenarekin hitz egin eta data eta ordua adostuko dira. Tailerrak azaroan zehar egitea aurreikiusten da.

**KALERATZEAK STOP MOZIOA**

Aurreko plenoan adostutako mozioa komentatu dugu gure artean. Harreman zuzena dugu Plataformarekin.

| **ETXEKO- LANAK** | **NOIZKO?** | **ZEINEK?** |
|---|---|---|
| TIPI TAPA dirulaguntza. Ea dirulaguntza jaso dugun baieztatu. | AZAROAK 17 | Belen-Jabi |
| DENBORAREN BANKUA. Legorretako kontaktuarekin hitz egin. | AZAROAK 17 | Haizea-Jabi |
| BERDINTASUNAREN GAIA.<br>AZAROAK 25.<br>• Marijo: pankarta prestatu eta pelikula lortu.<br>• Jabi: kulturgunea erreserbatu.<br>• Leire: hitzaldirako prest dagoen pertsonakin harremanetan jarri.. (horrela | AZAROAK 17 | Marijo<br><br>Jabi<br><br>Leire |

ITSASONDO EKINEZ EGINA

| | | |
|---|---|---|
| erabakitzen bada).<br>• Kolokio-hitzaldia: erabakia hartu.<br>AZAROAK 27.<br>• Marijo: autodefentsa ikastaroko datak zehaztu.<br>• Jabi: kulturgunea erreserbatu. | | |
| AURREKONTUAK LANDU | | Denok |
| DOKUMENTAL ZIKLOA.<br>• Marijo: pelikulak lortu.<br>• Jabi: kulturgunea erreserbatu.<br>• Oparirik bai? Denon artean erabaki. | | Marijo - Jabi |
| DESFIBRILADORE KURTSOA.<br>• Jabi: Josunekin harremanetan jarri.<br>• Jabi: kulturgunea erreserbatu.<br>• Denon artean: eguna ta ordua adostu. | | |

**HURRENGO BILERA**

**Hurrengo bilera, Azaroak 17an egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.**

GAI ORDENA:

- DENBORAREN BANKUA
- TIPI TAPA (dirulaguntza)
- BERDINTASUNAREN  GAIA
- AURREKONTUAK
- PELIKULA-DOKUMENTAL ZIKLOA
- DESFIBRILADOREA